



Tresna eramangarri hau, elektrizitatez edo aire konprimatuz eragiten dena, erabiltzeagatik egiten diren **ebaketak** ohikoak dira, eta lan-istripuen ondorioak, askotan, **LARRIAK** edo **HILGARRIAK** izaten dira.

Batez ere, abiadura handian biratzen duen ebaketa-osagarriarekin kontaktuan egoteagatik gertatzen dira, eta eraikuntza-lanetan maiz erabiltzen den tresna honek (rotaflex, radial edo amolgailu angeluarra) badu ebaketa-osagarri hori.



IDENTIFIKATUTAKO KAUSA NAGUSIAK


- **AURREIKUSI GABEKO ERABILERA**, zereginetan edo moduan, fabrikatzaile erabilera-eskuliburuaren arabera (ebaketa-diskoa, errotazio-abiadura desegokia, jarduteko prozedura edo baldintza okerrak, etab.).
- **SEGURTASUN-ELEMENTUA** ez egotea edo kentzea (babes-karkasa, alboko heldulekua, etab.)
- **ERREMINTA** edo **DISKOA**, ebakitzekoa edo arbastatzekoa, **EGOERA TXARREAN**.



- Pieza **BEHAR BEZALA EZ FINKATZEA** (eusteko tresna desegokia / falta).
- Tresna erabili ondoren, **EZ DESKONEKTATZEA**.
- ⁽¹⁾ **NBE DESEGOKIA** / langileari **EZ EMATEA**.
- **LANTOKIA**. Ikusgarritasun desegokia, leku falta, etab.
- Ataza gauzatzeko **PROZEDURA** desegokia / ez egotea.
- **PRESTAKUNTZA / INFORMAZIOA / ESPERIENTZIA** eskasa edo desegokia lana egiteko.
- Aurreikusitako prebentzio-neurriak **EZ BETETZEA**.

PREBENTZIO-NEURRIAK

- **ERABILERA-ESKULIBURUAREN** jarraibideak betetzea, erreminta eta haren osagarriak fabrikatu ziren moduan eta helburuan erabiliz.
- Ebakitzeko edo arbastatzeko **DISKOA** hautatzea, piezaren materiala, erremintaren fabrikatzailearen ezaugarri teknikoak eta osagarriaren eta horien arteko bateragarritasuna (hala nola biraketa-abiadura) kontuan hartuta.
- Erremintaren segurtasun-elementuak **EZ KENTZEA ETA ERABILTZEA**.
- Lana hasi aurretik erabili beharreko erremintaren eta osagarriaren **EGOERA BERRIKUSTEA**.
- Erreminta martxan jartzeko **ETENGAILUA EGIAZTATZEA**, korrante-hargunera konektatu aurretik.
- Tresna edo **EUSTE-ELEMENTU EGOKIAK** erabiltzea, ebaketan pieza mugi ez dadin. Gorputz-adarrak edo hirugarren pertsonak ez erabiltzea pieza eusteko.
- Erreminta **GELDITZEA** lana amaitzean eta osagarriak biraketa amaitu arte itxaron, erreminta gainazal nibelatu batean utzi aurretik, eta ondoren, energiatik deskonektatzea.
- ⁽¹⁾ **NBEak HORNITZEA ETA ERABILTZEA** langileak duen arriskuaren arabera eta langilearen ezaugarrietara egokituta.
- Erreminta **GARBITZEA** eta **MANTENTZE-LANA BEHAR BEZALA** egitea fabrikatzailearen kontserbazio- eta berrikuspen-jarraibideen arabera, erreminta segurtasun-baldintzetan mantentzeko. Horren arabera, mantentze-lanen erregistroa osatzea.
- Lantokiaren arabera, lana **PLANIFIKATZEA** eta arriskuak **IDENTIFIKATZEA**.
- **LANEKO ARROPA ESTUA** erabiltzea, langilearen lana oztopa dezakeen zati solterik edo hondaturik gabekoa.
- Kasuan kasuko atazarako **LAN-PROZEDURA** espezifikoak ezartzea, arriskuak txikiagotzeko.
- Erreminta erabiltzean eta egin beharreko lanetan diren arriskuei, prebentzio-neurriari eta segurtasun-jarraibideei buruzko **PRESTAKUNTZA** eta **INFORMAZIOA EMATEA**, eta horiek betetzen direla zaintzea.



⁽¹⁾ **NBE**. Norbera Babesteko Ekipoa